

DBLOko klausulak, datuak eskuratu gabe

1. XEDEA	2. EREMUA
Norberaren datuak babesteari buruzko (DBLO) abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren Garapenerako Araudia onetsi duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 83. artikulua betetzea.	Gainerako alderdiek egiten dituzten proiektu guztiak eta ematen dituzten zerbitzu guztiak, baldin eta norberaren datuak tratatzea eragiten ez badute.

3. GARAPENA

I. Datu pertsonalak eskuratzeko beren-beregiko debekua

Kontratu honen xede diren lanak egiteko, baliteke adjudikazioduneko langileak datu pertsonalak dituzten fitxategiak tratatzen dituzten lokaletara sartzea, datu pertsonalak dituzten euskarriak edo baliabideak eskuratzeko edo isilpeko bestelako dokumentazio mota hartzea, mota horretako datuen tratamendua zuzenean ez dakarten lanak egiteko.

Nolanahi ere, beren-beregi debekatuta dago Bizkaiko Foru Aldundiaren jabetzako datu pertsonalak eskuratzeko.

II. Sekretua gordetzeko eginbeharra

Adjudikazioduneko langileek uneoro agindutako zereginak betetzeko ezustean eskuratu ditzaketen datu pertsonal guztien lanbide sekretuari eta sekretua gordetzeko eginbeharrari eutsi beharko diete. Debekatuta dago adjudikazioduneko langileek hirugarrenei datu pertsonalak edozein modutan ezagutarazi, eskualdatu, laga edo komunikatzea. Halaber, betebeharrak hori harremana bukatu ostean ere bete beharko da. Adjudikaziodunak konpromisoa hartuko du langileei agiri honetan ezarritako betebeharrak komunikatu eta betearazteko, eta, bereziki, sekretua gordetzeko eginbeharrari buruzkoak.

III. Segurtasun-neurriak

Adjudikaziodunak konpromisoa hartuko du aplikatu beharreko datuak babesteko indarreko legeriak xedatutako guztia bete eta Bizkaiko Foru Aldundiko jarraibideen arabera jarduteko, honela:

DBLOko klausulak, datuak eskuratu gabe

- Adjudikazioduneko langileak behartuta egongo dira lokaletako segurtasun-neurriak errespetatzera, eta haiek toki horretan egoteak edo hartatik igarotzeak ezin izango du inolako murrizketarik ekarri jatorrizko segurtasun-baldintzetan (ateen eta leihoen itxitura, alarmen konexioa eta abar).
- Adjudikaziodunak bermatuko du baimendu gabeko pertsonak ezin izango dutela bistaratu zerbitzua emateagatik duen informazioa. Horrela, informazioa biltegitzeko, gordetzeko edo kontserbatzeko erabiltzen dituen lekuak egokiak izan beharko dira konfidentzialtasun-eginbeharra bermatzeko.
- Adjudikaziodunak konpromisoa hartuko du zerbitzua emateagatik dituen datu pertsonal guztiak suntsitzeko. Betebehar horrek datu pertsonalak biltzen dituen edozein motatako euskarriri edo dokumenturi eragingo dio, eta, horretarako, mota horretako datuak berreskuratzea ezinezkoa dela bermatzeko behar diren neurriak hartuko ditu.
- Kontratu honen indarraldian edo horren ondoren fitxategiaren arduradunaren jabetzakoak diren datu pertsonalen segurtasunari eragiten dion edo eragin diezaiokeen edozein inguruabar Bizkaiko Foru Aldundiari jakinaraziko zaio berehala.

IV. Konfidentzialtasun-bermea

Adjudikaziodunak egiaztatuko du bere langileek konfidentzialtasun-klausula sinatu dutela. Horren arabera, konpromisoa hartu dute kontratua gauzatzen den bitartean edo horren ondoren haien lanpostuaren edo eginkizunaren arabera ezagutzen duten informazioa ez jakinarazteko. Halaber, langileek datu pertsonalen babesari buruzko araudia beteko dela bermatzera zuzendutako segurtasun-neurriak ezagutuko dituzte.

V. Erantzukizuna eta kontratua suntsiarazteko arrazoiak

Adjudikaziodunak aurreko ataletan ezarritakoa betetzen ez badu, tratamenduaren gaineko erantzuleztat joko da, eta, beraz, gertatutako arau-hausteen gaineko erantzukizuna izango du, baita interesdunek Datuak Babesteko Agentzia eskudunean aurkeztutako edozein erreklamazioren gaineko erantzukizuna, eta, hala denean, ondasunetan edo eskubideetan eragindako kaltearen edo lesioaren ondoriozko erantzukizun-ekintza egikaritu duen pertsonari aitortutako kalte-ordainaren gaineko erantzukizuna ere.

DBLOko klausulak, datuak eskuratu gabe

Hona hemen kontratua suntsiarazteko arrazoiak: adjudikaziodunak edo langileek sekretua gordetzeko eginbeharra bortxatzea, eta datu pertsonalak babesteko araudia ez betetzea.

4 BERRIKUSPEN HISTORIA

Berrikuspena	Data	Aldaketa
00	2013/10/14	Arauaren onartzea